

Luisa Egia Agirrebeitia San Antonio
Ermua, Bizkaia (1921-2014)

Aurkibidea

Biografia

Ermuko San Antonio okindegiko beharginak ziren gurasoak; 1921ean bertan jaiotzeaz gain, bertako gaitzizena harrotasunez eraman izan du Luisak. Gazterik alargundu eta 3 seme-alabarekin geratu zen. Kantu eta kontu zalea, gustuko zuen irakurtzea zein lagunartean egotea. Hizlari ona, antzinako Ermuko gauzatxoak kontatzen pozarren egoten zena. Hizkera: ermuarrera.

Zintak

ERM-036

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2007-11-19
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

ERM-144

- **Proiektua:** Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 1994-03-06
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

ERM-145

- **Proiektua:** Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 1994-03-06
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

ERM-153

- **Proiektua:** Ermua eta Eitzako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranberri Odriozola, Fernando
- **Data:** 1995-04-18
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Aranberri Odriozola, Fernando

ERM-159

- **Proiektua:** Ermua eta Eitzako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranberri Odriozola, Fernando
- **Data:** 1995-04-18
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Eitzagara eskolara trenbideko tuneletik

- **Erref:** ERM-036/002
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Herrian ibili zen eskolan lehenengo, baina bronkiotatik gaizki zebilenez, medikuak aholkatuta, Eitzagako auzo eskolara joaten hasi zen. Tunela zeharkatu behar zuten. Jantoki ederra. Oso maistra ona izan zuen.

Transkripzioa

-Ta gero eskolan be Ermuan. Neri akordatzen jata, Doña Maria maistra zaharra. Ez eban erakusten tautik be baiña bueno. Gero akordatzen jata geixorik, geixotu nitzan ni, bronkixuetako fuertia nekan. Bizi guztian segidu dost haretzek, e. Ta ez dakit ba zenbat urte eukiko nittuan, hamar bat urte edo? Bederatzi edo? Ta holan handik lasterrera Ermuan euan mediku bat

oso-oso ona, Don Sabino Bengoetxea. Mediku bat zan kategorixakua eta argixa. Eta gure amari esan bihar izan otsan eze: "Hau neskato hau atarako bazendukie holan mendira edo piñadixa daon lekura, bronkixuetarako asko be hobeto. Gure aitta patxaraz, harek ez, baiña gure ama zan argixa. Eta esan eban eze: "Bai? hau eskolara ataratzia onena. Orduan barriadetara jente asko joaten zan, Sallabentera... Eitzara gitxiao urrin eualako. Ta Sallabenten ez euan lekurik eta, bueno ba Eitzara eskolara. Eitten nittuan goixian eta arratsaldian biajiak, e. Orduan trenak be gitxi pasatzen zien eta. Tuneletik joaten giñan. Goizian maistriakin. Ermuan Arkupe Zarretan euan apopillo. Ez dakit zein lekutan. Bera eta Sallabentekua be bai. Ta gero egualdi ona euanian behintzat, egualdi onakin, bazkaittara etortzen giñan. Enkanbio neguan egualdi txarra baeuan, ba sukalde ederra genkan. Diputaziñuak amantalak, ontzixak, esku-trapuak... Baiña ederrak, e. Ta harrikatza be eruaten eben Ermutik diputaziñuak pagauta, astuakin. Ta bazkaixa eitten genduan eta bertan bazkaldu. Holan ibili nintzan ba urtietan. Ta astian behin edo, ala ez dakit birritan behin edo, joaten jakun Ermuan euana jesuita haundi bat, Aitta Murgoitio, dotriniakin. Ta ibiliko nitzan ba ni eskolan gerriak urten arte, hamalau urtera arte edo. Ikasi nebana hantxe ikasi neban.

2. Irakurtzen ona, idazten ez

- **Erref:** ERM-036/003
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Kapitalak-eta (Geografia) buruz zekizkien. Irakurtzea ere gustatzen zitzaion, baina idazterakoan, nahiz eta letra ona izan, ortografia akats asko egiten zuen.

3. Tunelean gerra denboran

- **Erref:** ERM-036/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra denboran, trenbideko tunelean pasatzen zuten eguna. Gerra amaitzean, Eibarren hasi zen lanean. Gero, nobioa topatu zuenean, Ermuko Urretanera joan zen.</p>

Transkripzioa

-Gero gerra ostian... Klaro, gerra denporan bizi genduan bizimodua "de aupa!". Refujixuak euazen, baiña azkenian akordau jakun Espillako tunelera edo joatia eguna pasatzen. Gure ama bazkarixakin joan eta gu

alper galantak hantxe, ixa egun guztian. Abioiak etozenian tunel barrura. Aria-zakuak eta ipinita euazen parian. Eta han pasatzen genduan eguna. Gero arik eta hamazazpi edo hamazortzi urte..., gerria amaittu zanian ba Eibarera joan nitzan biharrera, bederatzi hillabete-edo gerria amaittu arte. Ta gero handik beste hil batzuek etxian einda, beste tailler batera Eibarrera. Beste, arik eta gero Ermura etorri nitzan. Nobixua Ermuan topau nebanian harek Ermura ekartia nahi. Ta Urretanian ezkondu arte biharrian.

4. Ermuko dendak

- **Erref:** ERM-036/006
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Paulatxoneko dendan denetik egoten zen, ardo-zahagia ere bai. Abilanak (kakahueteak) tostatzeko makina. Mantianeko dendan (Denda Barrixa) oso jenero ona. Herreronean eguenetan txerri bi hiltzen ziren. Gibela erosten. Plazako estankoa. Zigarro-puruak hiru txakur haundi Bruna-nean.

5. Tabernak eta tailerrak

- **Erref:** ERM-036/007
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:09:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Ostatuan batzokia eta taberna zegoen. Pedro Marirena, Okarizena, Ezkerrarena... Ermua tabernaz ondo hornituta egon ei da. Leon Txikixanekua, Mattin Txikiñekua, Salabarrianekua... lantegien izenak. esaten ditu.</p>

6. Nahikoa ogi gerra denboran

- **Erref:** ERM-036/009
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Ama eta biek okindegian egin zuten lan. Udaletxera joaten zen ogia eramatera. Soldaduekin zituen solasak. Ez zuten goserik pasatu, ogia, baba,

oilategia... izaten zutelako. Oiloak baserrira eraman zituzten eta horri eskerrak salbatu ziren. Ardoa ez edateagatik argaldu ei zen jendea orduan. Santixaupe iturriko ura, ona.

7. Hileta bazkaria

- **Erref:** ERM-036/010
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Ermua baserriz beteta zegoen. Lehenago hiletak goizetik izaten ziren eta bazkaria eman behar senideei: entieru-bazkaria. Ahizparena gogoratzen du. Eskerrak hiletak arratsaldera pasatu zirela.</p>

Transkripzioa

-Lehen hasi zara esaten, eta zelako akorduko Ermua?

-Ba Ermuan dana basarrixa. Herri guztia euan basarrixakin beteta. Baiña oso danok etxeko moruan edo. Ondo konpontzen giñan gaiñera. Orduan badakizu zer euan etxian hiltzen zanian txarra? Nik dakat akorduan neure aitzia. Ixa azkenengo samar haxe izango zan, urte asko da ta. Ha il zanian goixetik entiarua hamaiketan. Bueno. Bazkaixa emun bihar zan gero. Etxian hildakua falta ta bazkarixa emun bihar. Ta akordatzen jata, Balerionian emon genduan bazkarixa. Ba etorri zien sekula bisittatzen etorri zienak be bai. Hiru edo lau baserri bakoxtetik ta mahikara galanta, zigarro-puru galantekin erdi moxkortuta illuntzian etxera. Ta gero graziak ipiñi ebena arratsaldian. Porke aitta ta gero arratsaldetik, baiña nere aitziana goixetik. Ta Balerionian bazkarixa emon genduan. Zelako kostunbriak euazen orduan, e!

-Zelan deitzen jakon horri bazkarixorri?

-Entierruko bazkarixa. Entierruko bazkarixa.

8. Gonbidautza eta idi-probak

- **Erref:** ERM-036/011
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Santiago hurrengo domekan egiten zuten gonbidautza etxean, idi-probak egiten ziren egunean. Orduko pasadizo bat gogoratzen du.

9. Umea izandako amaren elizan sartzea

- **Erref:** ERM-036/012
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Orduan eliza gogorragoa zen. Umea izandako amak "elizan sartu" behar izaten zuen handik egun batzuetara. Berari sekulako zaratak atera zizkion apaizak protokoloa zuzen ez betetzeagatik.</p>

Transkripzioa

-Orduan gaiñera neri akordatzeko jata elixia... Zelan kanbixauta daon oin elixia! Orduan justizieruaua edo gogorraua zan. Oin libertade gehixao dao elixan. Porrejenplo umia eukitzen genduanian bautizau, ezta, ta gero elixan sartu bihar izaten zan andria. Umia hartu bai, eta bakarrik edo jeneralmente lagunakin. Kandela batekin joan bihar ziñan. Neri akordatzeko jata elizpian. Silla bat ataratzeko otsuen ta hantxe belaunbiko oraño batzuk eitten otsazen. Baten ein neban hanka-sartze bat... Ahaztu jatan neri elizpian egon bihar nitzana. Hartu umia ta sartzen naz barrura. Orrua baten, kanpora urten biotela!, elixara ezin nazela joan. Oin akordatzeko jata, gure jangoikuak ze, ze pentsatzeko ete juan orduan. Ni elixara sartu ta urtetzeko kanpora. Bai ba, umiakin kanpuan egon bihar nitzan. Pentsatzeko egoten nitzan, nahikua sakrifizio dok ba umia eukitzia. Noberak umia euki ta oinddiok han horrek sakrifiziuko noberak ein bihar. Gizonak danetik daonaz libre beti!

10. Ermita izandakoa egurtegi

- **Erref:** ERM-036/013
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

San Antonio, ermita izandakoa, egurtegia zen bere denboran, oso leku freskoa udan ere. Kaminoan erromeria eta jolasa, ez zen kotxerik pasatzen eta. Erretenera bainatzera.

11. Afaria ordaintzeko dirurik ez

- **Erref:** ERM-036/014
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Nagusitu zirenean, Aizixora (Areitiora) joaten ziren dantzara. Trabakura bazkaltzera. Behin, kuadrillak bazkaldu zuen; eta, ordaintzeko orduan, dirua

falta. Aldameneko mahaian zegoen ezagun batek utzi zien. Handik Mallabira jaisten ziren dantzara.</p>

12. Kantuan

- **Erref:** ERM-036/015
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Bere lagun Mirenek kantu asko zekizkien, kantuan egiten zuten taldean. Elizan ere kantatzen zuten.

13. "Tres Navios"ka

- **Erref:** ERM-036/017
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Nola jolasten zuten "Tres Navios"ka, aldi berean aldabak jo eta okerrak eginez. Kanposantura ere joaten ziren jolasera. Arbia hustu eta kalabera baten itxura nola ematen zioten.</p>

14. Plazan dabolinaren soinura dantzan

- **Erref:** ERM-036/019
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Jaian danbolinean dantzan egiten zuten. Hasieran ez zekien ondo eta kontzejupean jardun zuen trebatzen. Dantzari amorratua izan da bere denboran. Dantzan leku txikian egin behar ei da. "Tarrañuelak" kastañuelen euskarazko izena.

15. "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitten moduan..."

- **Erref:** ERM-036/020
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Aita dantzari amorratua. Ez ei zuen erdaraz ikasi. Eibarko estazioan fakturazioak egiten zituen, eta behin batek adar-soinuan galdetu zion: "Vitoriano, ¿tal con el castellano?", eta aitaren erantzuna: "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitten moduan...". Bertsopaperak irakurtzen zizkion aitari. *Drogeten Iturri* aldizkaria irakurtzen du. *Lazkao Txiki*ren liburua.

Transkripzioa

- A, berak esaten ostan, gaiñera. "Aitta, eskolara ta?" "Ni eskolara gitxi joan non, dantzan gehixao gustatzen jatanan eta". "Ze eitten zenduen?". Ba ganauzaiñara bialdutakuan, gaztaiña-zuluak egoten zien haundixak. Gaztaiña-zuluak ba gaztaiñak eta behian lekua haundixa ta. Terreno saillian. Ta gaztaiña-zuluak, berak soiñua jo eta berak dantzan eiñ. Dantzan hantxe be. Dantzari kristona zonan, dantzan nahixao eskolara joatia baiño. Eta horregaittik gero. Periodikua beti hartu bihar izaten eban. Ta irakurten eban ba. Baiña sekula ez eban ikasi erderaz ondo. Danekin aittu, e, erdi erdera erdi kastillano. Amak zoragarri ekixan, baiña harek ez. Pentsaizu, Eibarren Aurrerako almagazien zenbat urtian egon zan eta. Orduan fakturaziñuak eitten zian, "grandia" ta "pequeña" esaten otsen, "facturación grande y facturación pequeña" Eibarko estaziñuan. Faktore bat euan gure aittari ulia hartzen beti.

- Zer zan faktoria?

- Faktoria zan ba zerak eitten zittuena, fakturatzen zittuenak. Ta zelan esan otsan baten? "Vitoriano!" "Qué?" "Qué tal andamos con el castellano?" "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitteten moduan hobe izango litzakek!". "Qué bien le has contestado!", jefiak. Euskeraz tautik be ez ekixan, eta guriak erderaz aitzen eban. Itten zittuan, fakturaziño guztiak berak itten zittuan. Erdi erdera erdi euskera. "Hik baheki euskeraz nik erderaz dakitteten moduan". Ta periodikua be irakurten eban ba. Baiña euskeraz harek, erderaz, e... Gero be nik euskeraz dakitteten edo irakurten doten beste aittagaittik. Gure aitta hankia ebaitta egon zanian, gustatzen jakozen bertsuak eta! Esaten osta ze: "Hi, hik ederto irakurten don eta hamen jakanadaz kantu-papelak eta bertsuenak eta". Euskeraz irakurri bihar izaten notsan dana. Nik usten dot orduan praktikau nitzala puxkat euskeraz irakurten.

- Drogeteniturri irakurtzen dozu?

- Bai. Hasi ta akabau. Baitta... Beste bat dakat euskerazkua Aranberrik erregalautakua, txiste morduakin eta. Eta Asierrek erregalau ostan Lazkao Txikin liburua. Bai-bai. Asier! Ez, hori zeuri erregalatzen dotsut. Ederto. Hango txiste batzuekin nahikua barre eraitten otsen gurasueri. Eske txiste bat da gaiñera barregarrixa batena, e.

16. Pertsonaiak: Tomas Kuku, Itturbe, Kalekua, Droget

- **Erref:** ERM-036/021
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:31:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Tomas Kuku txabola batean bizi zen. Itturbe-k emakume bati esanikoa. Etxe onekoa zen "Kalekua" (Luis Marzana); bertsolaria; ama hil zenean narrastu egin zen. Droget gizon dotorea.

17. Parterak

- **Erref:** ERM-036/022
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:31:27. **Bukatu:** 00:32:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Segunda, Esperanza eta Eladia, Ermuko parterak. Ez zen uste den beste ume hiltzen erditzean. Tuberkulosia zen orduko gaitz nagusia.

18. Kinkilleroa beren produktuak euskaraz iragartzen

- **Erref:** ERM-036/023
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:32:45. **Bukatu:** 00:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Gerra denbora ondo igaro zuten. Kinkilleroa etortzen zen, eta kalez kale joaten bere jeneroa euskaraz iragartzen. Eibarko komertzioez. Asko aldatu da mundua harrezkero.

19. Garbigailua, aurrerapenik onena

- **Erref:** ERM-036/024
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:34:49. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Garbigailua aurrerapenik onena. Lehen aste osoa pasatzen zuten arropa garbitzen. Beratzen ipini, astindu... Estazio kalean zegoen garbitokia eta arropak astintzera joaten ziren hara. Asko gustatzen zitzaion hara joatea.</p>

20. Sutako hautsik ez, lejaia bai

- **Erref:** ERM-036/025
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:37:33. **Bukatu:** 00:38:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Sutako hautsik ez zuten erabiltzen, lejaia bai, "El Conejo". Arropari kolorea emateko xaboi ugari behar.

21. Markanoren kantua

- **Erref:** ERM-036/026
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:38:18. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Apaizaren gertakizuna edo txistea. Angel Markanok abioi itxuran ipini zuen bizikleta. Hari buruzko kantua. Karrerak pasatzen zirenean tailer guztiak ixten ziren.</p>

22. Goikoetxea ingeniaria

- **Erref:** ERM-036/027
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:40:52. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Goikoetxea ingeniari elorriarrak egin zuen "Osteko Kamiñua", errepide nagusia. Trenbideko zubia ere bai. Goikoetxea horrek gero nazionalistei traizio egin zien. Talgoaren asmatzailea.

23. Amak eskua "lijerra"

- **Erref:** ERM-036/028
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:42:00. **Bukatu:** 00:44:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ezin ziren amarengana kexatzera joan, bestela berak astintzen zituelako. Diru guztia "sorpresak" erosten gastatu zuenekoa. Esku lijerra zuen amak. Aitak, oster, ez. Hala ere umeak estimatzen zuten, dena ondo gobernatzen zuelako. Anaiari gertatutakoa. Berak ere amaren aldera irten ei du.</p>

24. Kantu zaletasuna

- **Erref:** ERM-036/030
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Kanturako zaletasun handia berak eta bere lagunak. Trabakuko tabernan kantatzen zuten sarri. Behin Berrizko mutilekin gertatua: leiho baten harrapatutako loreontziak oparitu zizkieten.</p>

25. Santixauak

- **Erref:** ERM-036/032
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:47:32. **Bukatu:** 00:49:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Bezperan etxeari distira ateratzen. Ez alperrik, hurrengo egunean lehen baino zikinago geratzen baitzen. Festa handiak Santixauak. Ez zegoen oporrik. Gainerako festa egunetan bazkaria eta afaria prestatzen jardun behar. Dantzan. Bandak jotzen zuenean ere batzuek dantzan egiten zuten.</p>

26. Erromeriak

- **Erref:** ERM-036/033
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:50:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

San Pelaixoko erromeria, Sallabentekoa... Azken honetakoa kaminoan egiten zen. Sallabenteko ostatuan, arbola baten gainean mahaia zegoen. Erromeria ederra egiten zen.

27. Erroska-saltzaileak

- **Erref:** ERM-036/034
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:50:49. **Bukatu:** 00:52:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Karamelero edo erroskera bi zeuden Ermuan. "Foterianekoa" bat, "ritxak" (ogi luzea) eta "fotak" (otxo formakoak) ekartzen zituen Durangotik goizeko trenean. Txindurrineko peorara joaten zen jendea eroatera.

28. Adarra apurtu eta sasira

- **Erref:** ERM-036/036
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:53:29. **Bukatu:** 00:54:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin, lagunekin jolasean, arbola baten adarretik zintzilikatzen ari zela, adarra hautsi eta sasira jausi zen.

29. Azpikogonarekin bainatzen

- **Erref:** ERM-036/038
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:56:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Erretenean (kanalean) bainatzen ziren. Kulero, kamisa, azpikogona eta guzti.

30. Ezkion Ama Birjina eta sorginak Aixola errekan

- **Erref:** ERM-036/039
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:56:06. **Bukatu:** 00:58:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Behin Ezkioko Ama Birjina ikustera joan ziren. Bidean (?) Debako hondartzan olatuak harrapatu eta zapatak busti. Ez zuen Ama Birjinarik ikusi. Mariatxok, oster, bai. Komentario barregarriak. Aspaldi Aixola errekan bai ei ziren sorginak, baina eskopetak galdu zituen.</p>

31. Komendiantek

- **Erref:** ERM-036/041
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:59:33. **Bukatu:** 01:00:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Plazan egoten ziren. Amak ez zien amaitu arte lagatzen, eta onenean joan behar etxera.

32. Koko janzteagatik, anaiak salatu

- **Erref:** ERM-036/042
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:00:21. **Bukatu:** 01:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erronera joaten ziren domeka arratsaldeetan dantza egitera. Apaizak errieta. Behin koko jantzita joan zen, pilotari, eta anaiak amari esan zion. Ez zituzten estuegi hartzen mutilekin ibiltzeagatik eta.</p>

33. Primera, segunda eta tertzerako hiletak

- **Erref:** ERM-036/044
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:03:30. **Bukatu:** 01:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Elizatik zarataka nola atera zuten (Ik. 9. pasartea). Hiletak ere hiru klasetakoak zeuden, prezioaren arabera. Jaungoikoa lehengoa egongo ei da, baina elizako gauzak zeharo aldatu dira.

34. Don Crispulo eta Don Facundo

- **Erref:** ERM-036/045
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:05:06. **Bukatu:** 01:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Bi abade zeuden gerra aurrean, anaiak, Don Crispulo (Txanpontxo) eta Don

Facundo. Gaiztoa lehena, ona bigarrena. Denek don Facundorekin konfesatu nahi eta komeriak. Benanzia zuten kriada.

35. Zelan hil da Kristo?

- **Erref:** ERM-036/046
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:06:29. **Bukatu:** 01:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Pazkuazkoa egiteko txartel berdea lortu behar zen. Horretarako, dotrinari buruzko galdeketa gainditu behar. Kristo zelan hil zen galdetu zion apaizak bati. Txiste barregarria.</p>

Transkripzioa

-Txartela zer zan?

-Paskuazkoa eitteko, berdia. Zurixa ez dakit zetarako zan. Neri akordatzten jata txartel berdian gero, paskuakua eitteko txartela bihar zan, dotriña jakin bihar zan horretarako. Aintxiñan pasau, hor joianaz lagun bat. "Gure etxian tabarra kristona emoten jostek eta banajoiak paskuakua eitteko txarteletara". "Ene, neuk be eingo neukek ba" ta. "Esango dostak ze preguntatzen duen elixan" ta "bai, esango duat". "Ze pasatzen da?" ta, "hamen nator txarteletara, gure etxian bake txarra dakat eta, paskuakua eitteko". "Hi dotriñatik be ondo egongo haiz?" "Bai, pentsatzen jatak baietz, dotrinatik ondo nagola". "Orduan jakingo dok, eztok, Jesukristo zelan hil dan" eta. "Koño, koño, koño, Jesukristo hilda dagola? Ni ez naz enterau Jesukristo hilda dagonik". "Ba zelan hil dan ez badakik, etxera joan eta ikasi dotrinia eta etorri bixar". Lagunak esan dotsa: "Hi, preguntau..." "Ez dakik asko zer preguntau dosten. Jesus dakitteten zelan hil dan" eta. "Nik gaixorik dagonik be ez juat (etxuat) jakin. (Barreak). Txarteletara joanda.

-Zerak emongo otsen hari txartela.

-Bai ba. Gaixorik dagonik be ez juat (etxuat) jakin eta txarteletara joateko.

36. Titiño Zarraren ipuinak

- **Erref:** ERM-036/047
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:08:00. **Bukatu:** 01:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Titiño Zarraren ipuinak. Zorrak nola ezabatu zituen. Nola egon behar den hiltzeko. Katua prestatu zueneko.

37. "Nabua" (arbia) jaten

- **Erref:** ERM-036/049
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:11:25. **Bukatu:** 01:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Arbia jaten hasi zirenean (gailegoek ekarri zuten ohitura), zenbait asko harritu zen. Odolosteak sarri. Porru-patatak egunero. Paella domeketan.</p>

38. Gabonetako jakiak

- **Erref:** ERM-036/050
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:13:18. **Bukatu:** 01:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Olixo-azia, Gabonetako jakia. Eta bisigua, konpota, intxaur-saltsa. Aitak barruan sugea zuten kaxa bana ekartzen zieten (mazapana).</p>

39. Erregenak

- **Erref:** ERM-036/051
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:14:18. **Bukatu:** 01:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Behin Erregenetan guardasola oparitu zioten, baina euririk egiten ez zuenez, egun eguzkitsu baten estreinatu zuen.

40. Arropa estreinatzen

- **Erref:** ERM-036/052
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:15:22. **Bukatu:** 01:17:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Kontzezinotan abrigoa eta Santixauetan soinekoa estreinatzen zuten, beti egun seinalatueta. Jostunek egiten zituzten arropa gehienak. Etxe batzuetan gehiago beste batzuetan baino.

41. Denetariko jeneroa arrautzen truke

- **Erref:** ERM-036/053
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:17:08. **Bukatu:** 01:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Iturrira joatea eta arropak garbitzea nesken lanak ziren. Mutilek kolperik ez. Anaiak arrautza gordinak zurrut egiten zituen. Arrautza asko izaten zutenez, Eibarko denda batera eraman eta trukean denetariko jeneroa ekartzen zuten. Ikasketak mutilei, neskei batere ez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com